



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Vitoria-Gasteiz
Hiri Hezitzailea
Ciudad Educadora



VITORIA-GASTEIZKO HEZKUNTZA-EGOERA, 2022

Egikaritze-txostena
(Urria, 2023)

IURREBASO BITERI, I. (UPV/EHU)

JIMENEZ ARRIETA, O. (MU)

LIZASOAIN HERNÁNDEZ, L. (UPV/EHU)

LUKAS MUJIKA, J.F. (UPV/EHU)

SANTOS BERRONDO, A. (UPV/EHU)

VAN DER WORP, K. (UPV/EHU)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. ONDORIOAK	5
2.1. VITORIA-GASTEIZI BURUZKO DATU OROKORRAK.....	5
2.2. VITORIA-GASTEIZKO HEZKUNTZA-SISTEMARI BURUZKO DATUAK	6
2.2.1. IKASTETXEEN TIPOLOGIA	6
2.2.2. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZAKO IKASLEAK.....	6
2.2.3. BEKAK.....	7
2.2.4. TESTUINGURUKO ADIERAZLEAK.....	8
2.2.5. BALIABIDEEN ADIERAZLEAK	8
2.2.6. EMAITZEN ADIERAZLEAK.....	8
2.2.7. EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAREN EREMU ESTRATEGIKOAK	9
2.2.8. ADINGABEEKIKO FAMILIEKIN GARATUTAKO ESKU-HARTZEAK ETA LAGUNTZAK.....	10
2.3. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK	10
3. TXOSTEN OSOAREN AURKIBIDEA	12

1. SARRERA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Eskola Kontseiluari zuzendutako azterlan honek hiriaren hezkuntza-egoera aztertzen du. Horretarako, zenbakizko adierazle ugari erabili dira, hiriaren hezkuntza-egoera islatzen dutenak. Horrelako ezaugarriak dituen hirugarren azterlana da, 2015ean eta 2018an ere egin baitziren azterlanak Vitoria-Gasteizko hezkuntza-egoeraz.

Gure iritziz, garrantzi handia du tokiko hezkuntza-egoera ezagutzeak –ondoren ebaluatze–, horri esker antolatu eta ardazu ahal izango baitira gero egoera hori hobetzera zuzenduko diren udalaren esku-hartzeak. Ildo horretatik, honako azterlan honek tokiko administrazioari bere hiriko hezkuntza-errealitatea ezagutzen lagunduko dio, bai eta azterlanean agerian geratzen diren alderdi nagusiak balioesten eta lehenesten ere, eta horietan esku hartu ahal izango du, hezkuntza hobetzeko.

Bi txosten aurkeztu dira: honako egikaritze-txosten hau, eta txosten osoa. Honako honetan, atal hauek jaso dira: sarrera (txosten osoa osatzen duten atalak aurkezten dira), azterlanaren ondorio nagusiak, eta azterlan osoaren aurkibidea, azterlanaren atal guztiak zehatz-mehatz zein diren jakiteko aukera ematen duena.

Azterlan honetan, horrelako ezaugarriak dituzten sistemetan erabili ohi diren zenbait adierazle txertatu dira. Azterlaneko denbora-tarteak, berriz, desberdinak dira erabilitako iturrien, datuak erabiltzeko aukeraren eta horiek eguneratzen diren maiztasunaren arabera. Ahal den guztietan, Vitoria-Gasteizko hiriari buruzko datuak eta Euskal Autonomia Erkidegokoak konparatu dira. Gainera, kasurik gehien-gehienetan, estatu mailan eta European normalizatuta dauden adierazleak dira, eta horrek ere erraztu egiten du konparatzeko aukera.

Adierazle horiek hiru dimentsiotan antolatu dira:

- Lehenik eta behin, Vitoria-Gasteiz buruzko **datu orokorrak** (txosten osoaren 2. atala): batez ere alderdi demografikoetan oinarritzen den informazioa da, biztanleei eta jaiotzei buruzkoa, esaterako. Hizkuntzei eta hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak ere atal honetan jaso dira.
- Bigarrenik, Vitoria-Gasteizko **hezkuntza-sistemari buruzko datuak** (txosten osoaren 3. atala): ohiko zenbait adierazle biltzen dira atal honetan, testuinguruarekin, prozesuarekin, baliabideekin eta emaitzekin lotutakoak. Hala, ikastetxeen tipologiari buruzko azalpenekin hasten da hirugarren atal hau, eta beste zenbait alderdirekin jarraitzen du: ikasleen banaketa mailen arabera, sarea, eredia eta sexua, hasi Haur Hezkuntzatik eta Lanbide Hezkuntzara arte; guztia, 2016-2017 ikasturtetik 2021-2022 ikasturteraino.

Ondoren, beste hainbat datu aurkezten dira: bekei buruzko datuak (zenbat eta zenbatekoak, maila eta bilakaera), irakasleei buruzkoak (maila, sexua eta adina), zerbitzu osagarriak (maila eta sarea), testuinguru-adierazleak (eskolatze-tasa eta biztanleen prestakuntza maila), baliabideen adierazleak (gastu publikoaren bilakaera ikasleko, ratioak

mailen eta sarearen arabera), emaitzen adierazleak (eskola uztea, graduazio-tasa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, egokitasun-tasa, ikasle errepikatzaileak, gaitasunen gutxieneko maila batera iritsi ez diren ikasleak), euskal hezkuntza-sistemaren eremu estrategikoak (bikaintasuna, berariazko hezkuntza-laguntzaren premia duten ikasleen eskolatzea, atzerritar jatorria duen ikasleen eskolatzea), euskara eta elebitasuna, eta digitalizazioa.

- Azkenik, hirugarren dimentsioa txosten osoaren laugarren atalean jaso da, eta **ebaluazio diagnostikoaren (ED) emaitzetan** ardatzu da: emaitza horiek 2009, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019. urteetan garatutako aplikazioei dagozkie. Definizioz, fenomeno konplexu eta latente baten zeharkako neurketak dira adierazleak, zuzenean behatu ezinezkoa den fenomeno batenak, zehazki, eta hezkuntza-sistema baten emaitzak adibide onak dira xede horretarako. Baina begien bistakoa da ebaluazio diagnostikoetako puntuazioak hezkuntza-sistemaren eraginkortasunari buruzko adierazle hurbilagoak direla, edo, nahiago bada, ez horren zeharkakoak.

Horretarako, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleek izan duten errendimendu akademikoaren mailaren irizpide gisa, aipatu diren urteei dagozkien ebaluazio diagnostikoetan hiriko ikastetxeek lortu dituzten puntuazioen batezbestekoak erabili dira. Zehazki, urtero ebaluatzen diren oinarriko hiru konpetentzia instrumentaletan lortutako puntuazioak erabili dira: hizkuntza-komunikazioa euskaraz, hizkuntza-komunikazioa gaztelaniaz, eta matematika.

Hiriko ikastetxeen eraginkortasun maila eta denbora-tarte horretan izan duten bilakaera erakusteko ebidentziak emateko xedez, batez besteko puntuazio horiez gain, *doitutako* batez besteko puntuazioak ere aurkezten dira, informazio baliagarri eta fidagarria dugun testuinguruko aldagaien eragina kontrolatu ondoren *doitutakoak*, hain zuzen.

Badago horretarako arrazoi sendo bat: begien bistakoa da ikaskuntzako emaitzetan eragina dutela testuinguruko faktoreek, eta, beraz, *eskola-eraginkortasuna* modu ekitatibo batean balioesteko, behar-beharrezkoa da testuinguruko faktore horiek kontuan hartzea. Dagokion atalean zehaztu dira erabili diren prozedura eta metodologia.

Azkenik, aurreko bi azterlanetan erabilitako adierazle eta neurketa berak erabili dira honako honetan ere, ahal den neurrian; hala, ematen den informazioa haiekin konparatu ahal izango da, eta denboraren joanean zer aldaketa izan diren ere ikusi ahal izango da.

Txosten honetan erabiltzen diren akronimoak, etapak, modalitateak eta beste termino batzuk nola ageri diren duzue ondoren:

- Haur Hezkuntza (HH aurrerantzean).
- Lehen Hezkuntza (LH).
- Bigarren Hezkuntza (BH).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH).
- Berariazko hezkuntza-laguntzaren premia (BHLP).
- Beste etapa eta modalitate batzuk, hala nola Batxilergoa, Hezkuntza Berezia edo Helduen Hezkuntza bere horretan ageri dira, akronimorik gabe.

Txosten hau egiteko behar genuen informazioa ondoren ageri diren erakundeek eman digute. Gure eskerrik beroenak horiei guztiei eta horietan diharduten arduradunei:

- Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT).
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.
- Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI).
- Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa.
- Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

2. ONDORIOAK

2.1. VITORIA-GASTEIZI BURUZKO DATU OROKORRAK

- 2022. urtean, Vitoria-Gasteizko **biztanleria** 253.672 biztanlekoa zen, eta % 52 emakumeak ziren. 20 urtetik beherako pertsonak biztanleria osoaren % 20 inguru ziren.
- Vitoria-Gasteizko biztanleen **jaioterriari** dagokionez, % 55,3 Araban jaio dira; % 7,3 Euskadiko beste probintzietan; % 22,3 estatuko gainerako probintzietan, eta % 15,1 atzerrian. Atzerrian jaiotako biztanleen proportzioa igo egin da: 2013an, % 11,6 ziren, eta 2022an, % 15,1.
- Vitoria-Gasteizko 2022ko biztanleetatik, % 89,2k espainiar **nazionalitatea** zuten; Europako beste herrialde batekoa zuten % 1,9k; % 4,1ek, Afrikako herrialde batekoa (horietatik % 2,6k Magrebeko herrialde batekoa); % 3,7k, Amerikakoa, eta % 1,1ek, Asia eta Ozeaniakoa.
- Hirian izan diren **jaiotzen** kopuruan, aldaketa handiak izan dira azken hamarkadetan. 1975ean, esaterako, 3.875 izan ziren; 1998an, berriz, 1.725; eta 1999tik aurrera, gora egin zen berriro jaiotzetan 2011ra arte, 2.556 jaiotza izan baitziren azken urte horretan. Hortik aurrera, behera egin du jaiotzen kopuruak pixkana, eta 2021ean 1.840 izan ziren. Atzeritar nazionalitatea duten amei dagozkien jaiotzak igo egin dira: 1996an, bizirik jaio zirenen % 2,5 ziren, eta 2021ean, berriz, % 34,0.
- Biztanleriaren **ikasketa maila** aztertzen badugu, ikasterik gabeko pertsonak edo analfabetoak % 2 dira; % 29,2k Lehen Hezkuntzako ikasketak dituzte, eta % 43k Lanbide Heziketarekin edo Bigarren Hezkuntzarekin lotutakoak. Gainerako biztanleek (% 25,9) erdi mailako edo goi mailako unibertsitate-ikasketak dituzte.
- **Herritarren hizkuntza-eskakizunari** erreparatuta, erdaldunen ehunekoak jaitsi egin da 1986tik (% 75) 2021era (% 50). Euskaldunen proportzioa, aldiz, handitu egin da nabarmen: 1986an % 5 ziren euskaldunak, eta 2021ean, % 25 baino zertxobait gehiago. Denboraldi horretan, ia euskaldunak diren herritarren ehunekoak egonkor iraun du, % 25aren inguruan.
- **Hizkuntza-eskakizunetan** izan diren aldaketak are eta nabarmenagoak dira **haurren artean**. 5 urtetik 14ra bitarteko herritarrei dagokienez, 1981ean erdaldunak ziren % 72,5, eta 2021ean, aldiz, % 1,0 ziren. Aldiz, euskaldunen proportzioa % 4,8tik % 77,8ra igo da. Ia euskaldunen ehunekoak nahiko antzekoak dira aztergai hartu den denboraldiaren hasieran eta amaieran.

Proporzio txikiagoan bada ere, Vitoria-Gasteizko haurren euskalduntze-prozesua nabarmentzen da hasierako hizkuntzari eta etxean hitz egiten den hizkuntzari dagokienez ere. Horrela, hasierako hizkuntza euskara bakarrik edota euskara eta gaztelania izan dituzten haurrak % 3,8 ziren 1986an, eta % 20,5 ziren, berriz, 2021ean. Etxean gehien erabiltzen den hizkuntza aztertuta, etxean soilik euskara edota euskara eta gaztelania erabiltzen zituzten haurrak % 5,6 ziren 1986an, eta % 21,8 2021ean. Azkenik, beste hizkuntza batzuen presentziak ere gora egin duela nabarmendu behar da: hasierako hizkuntza gisa gaztelania edota euskara ez den beste hizkuntza bat erabiltzen zuten haurrak % 0,5 ziren 1986an, eta 2021ean, % 7,2 ziren. Eta etxean beste hizkuntza bat erabiltzen duten haurren proportzioa ere hazi egin da: % 0,4 1991n, eta % 5,6 2021ean.

- Etorkizunari begira, 2036an 271.000 biztanle izatera iritsi arte hazten jarraituko duen hiri bat erakusten digute egin diren **proiekzioek**. Aldi berean, biztanleriaren zahartze bat ere aurreikusten da: gaur egun baino haur gutxiago izango direla jo da (2036an 2021ean baino 3.000 haur gutxiago), eta 65 urtetik gorako herritarren kopurua nabarmen haziko dela (adin horretan ia 22.000 pertsona 2036an).

2.2. VITORIA-GASTEIZKO HEZKUNTZA-SISTEMARI BURUZKO DATUAK

2.2.1. Ikastetxeen tipologia

- 2021-2022 ikasturtean, Vitoria-Gasteizek 109 **ikastetxe** zituen (75 publiko eta 34 itunpeko). Gehienek Haur Hezkuntza edota Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen dituzte; ondoren, hiru mailak, HH, LH eta BH, eskaintzen dituztenak daude (gehienak itunpeko sarekoak), eta BH soilik eskaintzen dutenak datoz gero.
- 2021-2022 ikasturtean, Vitoria-Gasteizko eskola-sistemak 50.760 **ikasle** zituen **matrikulatuta** (29.197 ikastetxe publikoetan eta 21.563 itunpeko ikastetxeetan). Ikasle gehienak LH eta BH eskaintzen duten ikastetxeetan matrikulatuta daude; ondoren, soilik BH eskaintzen dutenetan eta HH eta LH eskaintzen dituztenetan matrikulatuta daudenak datoz.
- **Vitoria-Gasteizko ikastetxeen neurriari** dagokionez, ikastetxe txiki ugari daude (100 ikasle baino gutxiagokoak); ondoren, 500 ikasletik 999 ikaslera bitartekoak datoz, eta 300dik 499ra artekoak gero. Ikastetxe **publikoetan**, ikastetxe txikiak dira gehien, eta 500-999 ikaslekoak dira bigarren ugariak; ikastetxe handiak, berriz, ez dira oso ohikoak. **Itunpeko** ikastetxeetan, txikiak (100 ikasletik beherakoak) edo handiak (1.000tik gorakoak) dira ugariak.
- Vitoria-Gasteizen, **ikasle gehienak** 1.000 ikasletik gorako ikastetxe handietan daude **matrikulatuta**; eta matrikula handieneko bigarrenak 500-999 ikasleko ikastetxeetakoak dira. Ondoren, 300 ikasletik 499ra bitartekoak datoz, eta 100dik 299ra bitartekoak gero, eta, azkenik, 100 ikasletik beherako ikastetxeetan matrikulatutakoak dira gutxien. Ikastetxe **publikoetan**, 500 ikasletik 999ra bitarteko ikastetxeetan dauden matrikulatuta ikasle gehien; **itunpeko** ikastetxeetan, berriz, ikastetxe handienetan daude matrikulatuta gehienak.

2.2.2. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikasleak

- **Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikasleak mailaren eta sexuaren arabera** aztertzen

baditugu, ikusten dugu ikasle gehienak LHn dabilzala; DBHkoak eta HHkoak datoz gero, eta etapa horietan, ia ez dago alderik emakumeen eta gizonen artean. Batxilergoan, ordea, gizonak baino gehiago dira emakumeak, eta, aldiz, Lanbide Heziketan, gehiago dira gizonak emakumeak baino.

- **Hizkuntza-ereduaren** arabera, gehienak D ereduaren daude matrikulatuta; ondoren, B ereduak eta A ereduak datoz, hurrenez hurren, eta X eta R ereduak ikasle gehienak oso txikiak dira. Adin txikieneko etapetan, handiagoa da D ereduaren matrikulatutako ikasle gehienak, eta, hezkuntza-etapetan gora egin ahala, ehuneko hori txikiagoa da.
- Hizkuntza-eredu bakoitzeko ikasle gehienak **bilakaeraz**, esan dezakegu 2011-2012tik 2020-2021era A ereduaren ehuneko txikiagoa joan dela, eta galera horixe izan da D ereduaren irabazi dena.
- **Talde eta matrikulatutako ikasle** gehien hartzen dituzten mailak LH eta BHkoak dira, eta ikasturtez ikasturte gora egiten ari dela ikusten da. Ondoren, bigarren zikloko HH eta lehen ziklokoak datoz, hurrenez hurren, nahiz eta ez den nabari beste mailatan bezalako hazkunderik.
- **Taldearen eta matrikulatutako ikasle kopuruak** goranzko **joera** erakusten du. 2016-2017ko ikasturteetik 2021-2022ko ikasturtera bitarteko guztietan, gehiago dira D hizkuntza-ereduko **taldeak**, eta, gainera, goranzko joera sumatzen da ikasturtez ikasturte. B hizkuntza-ereduko taldeak eta A ereduak datoz, hurrenez hurren, horien atzetik. R ereduaren dezente talde gutxiago daude, nahiz eta hazkunde nabarmena ikusten den ikasturteetan zehar. X ereduaren taldeak 2020-2021eko ikasturteetik hasi dira, eta hiru talde baino ez daude; 2021-2022an, 19 ikasle izatera iritsi ziren.
- **HH eta LH, DBH** eta Batxilergo hartuta, ikasle gehienak handiena D hizkuntza-ereduan dago matrikulatuta (goranzko joera); B hizkuntza-eredukoak dira ondorengoak, eta A hizkuntza-eredukoak datoz gero (beheranzko joera). Gutxiengoa dago X ereduaren matrikulatutakoa. **Lanbide Heziketari** dagokionez (oinarrizkoa, erdi mailakoa eta goi mailakoa), ikasle gehienak A ereduaren daude matrikulatuta (beheranzko joera), R hizkuntza-eredukoak datoz gero (goranzko joera) eta, azkenik, D ereduaren matrikulatutakoak daude (goranzko joera txiki bat nabari da).
- **DBHn, Batxilergoan eta oinarrizko Lanbide Heziketan**, itunpeko ikastetxeetan daude matrikulatuta ikasle gehienak, ikastetxe publikoetakoekin alderatuta, baina beste mailatan aurkako joera nabari da.
- Ikastetxe **publikoetan**, D ereduaren matrikulatutako ikasleak dira gehienak, B ereduak datoz gero, eta A ereduak ondoren; aldiz, **itunpeko** ikastetxeetan, alderantzizko joera nabarmentzen da.

2.2.3. Bekak

- **Ikasle bekadunei** dagokionez, eta **mailari eta sexuari erreparatuta**, ikasle bekadun gehienak dituzten mailak honako hauek dira, ehuneko handiena dutenetatik txikienokotara ordenatuta: oinarrizko mailako Lanbide Heziketa, LH, DBH, Batxilergo, erdi mailako Lanbide Heziketa eta, azkenik, goi mailako Lanbide Heziketa. HHko lehen zikloa da batez beste bekadun ikasle gehienak dituen, alde nabarmenarekin; baina ehuneko hori handitu egiten da bigarren ziklora iristean.
- **Sexuari** dagokionez, bekadun emakumeak gizonenak baino gehiago dira goi mailako Lanbide Heziketan eta Batxilergoan, gainerako mailaekin alderatuta.

- Oro har, **bekadun ikasleen ehunekoak bilakaeran**, beherazko joera txiki bat ikusten da 2020-2021 ikasturtera arte (% 31,5etik % 28,9ra), eta, ondoren, % 4,2 hazten da; hala, % 33,1ekoa da 2021-2022an.
- **Mailei** dagokienez, bekadun ikasleen ehunekoak aldatu egiten dira ikasturtez ikasturte, baina beherazko joera bat nabarmentzen da Lehen Hezkuntzan; aldiz, Lanbide Heziketan (erdi eta goi mailan), joera goranzkoa da.

2.2.4. Testuinguruko adierazleak

- Zero urtetik bostera bitarteko biztanleen **eskolatze-tasak** ez du aldaketa handirik izan 2014-2015 ikasturtetik 2021-2022 ikasturtera. Ikus daiteke eskolatze-tasak gora egiten duela ikasleen adinak ere gora egin ahala. Urtebete arteko haurretan, % 11 - % 17 ingurukoa da, eta urtea betea duten haurretan, berriz, % 50 ingurukoa. Bi urtetik aurrerako kasuan, eskolatze-tasa izugarri handitzen da, eta % 90 inguruan kokatzen da. Hiru, lau eta bost urteko haurretan, eskolatze-tasa % 100era gerturatzen da. Hala, 2021-2022 ikasturtean eskolatuta zeuden adin horretako umeak % 97 inguru zirela egiazta daiteke
- **Herritarren prestakuntza mailari** buruz, esan behar da ez dagoela **analfabetorik** 25-39 urte bitartekoetan, eta oso gutxi direla 40tik 64ra bitartekoetan (% 0,1-02), bai gizonen eta bai emakumeen kasuan. Adin-tarte guztietan daude **ikasketarik gabeko** herritarrak, baina gutxiago dira adinean gora egin ahala, gizonen nahiz emakumeen artean. **Lehen Hezkuntzako ikasketak** dituztenen ehunekoa handitu egiten da adinean aurrera egin ahala, biztanleriaren % 36,2ra iritsi arte. Lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen ehunekoa gizonekoena baino apur bat handiagoa da. **Lanbide-ikasketak** dituzten biztanleen ehunekoak % 19tik % 31ra bitartean dabilta gutxi gorabehera, eta emakumeen ehunekoa gizonena baino txikiagoa da prestakuntza maila honetan. **Bigarren Hezkuntzako ikasketak** dituzten herritarrak % 13 eta % 26 bitartean dabilta, eta ez dago alde **nabarmenik** bi sexuen artean. **Erdi mailako eta goi mailako ikasketak** dituzten herritarrei % 0,7 - % 12 tartea dagokie, eta emakumeen ehunekoa gizonena baino zerbait handiagoa da. Azkenik, **goi mailako ikasketak** dituzten herritarren kopurua murriztu egiten da adinean aurrera egin ahala, eta bi ehuneko hauen artean kokatzen da: maximoa % 39,9koa da, eta 25-39 urteko biztanleen dagokie; 60-64 adin-tarteari, berriz, % 13,3 dagokio. Sexuari erreparatuta, ehuneko handiena emakumeena da adin-tarte guztietan, salbuespentzat hartuta 60-64 adin-tartea, kasu horretan handiagoa baita gizonekoena (% 11,8 emakumeak, % 15 gizonak).

2.2.5. Baliabideen adierazleak

- Hezkuntzako **gastu publikoak** goranzko joera erakusten du, joera hori 2018an eten bazen ere. 2012ko gastua eta 2021ekoa alderatzen baditugu, 72.141 euro gehiago dagozkio azken urteari.
- **Jarduera eta zerbitzu** osagarriei dagozkien gastuak eta **ikasleko** kapital-gastua aztertzen baditugu, horietan ere goranzko joera nabarmentzen da 2021-2022 ikasturtean.
- **Ikasle/irakasle** ratioa txikiagoa da sare publikoko ikastetxeetan itunpeko ikastetxeen sarean baino, eta bien arteko aldea 10 puntu ingurukoa izan da 2021-2022 ikasturtean.

2.2.6. Emaitzen adierazleak

- **Egokitasun-tasak**, oro har, beherazko joera du LHko eta DBHko ikasturteetan, eta hezkuntza-etapetan aurrera egin ahala, egokitasun-tasa jaitsi egiten da pixkana. 2016-2017tik 2021-

2022ra bitarteko ikasturteak aintzat hartuta, ikusten da LHko lehen mailan, esaterako, egokitasun-tasa % 95-97 ingurukoa dela, eta DBHko laugarren mailan, berriz, % 71-75 bitartekoa. Sexuari dagokionez, oro har egokitasun-tasa altuagoa da emakumeen kasuan gizonenean baino, eta aldea are nabarmenagoa da DBHn. 2016-2017tik 2021-2022ra bitarteko ikasturteak aintzat hartuta, ikusten da orokorrean DBHko laugarren mailako egokitasun-tasa, emakumeen artean, % 74-79 bitartekoa dela, eta gizonen artean, berriz, % 69-72 bitartekoa.

- Oro har, **egokitasun-tasak** beheranzko joera du ikasturteetan (2016-2017tik 2021-2022ra) LHko lehen, hirugarren eta bosgarren mailetan, eta goranzkoa LHko bigarren, laugarren eta seigarren mailetan. DBHn, 2016-2017tik 2021-2022ra bitarteko ikasturteetan, egokitasun-tasak goranzko joera erakusten du ikasturte guztietan. Sexuari dagokionez, emakumeen egokitasun-tasa handiagoa da gizonena baino, ikasturte guztietan eta LHko eta DBHko maila guztietan.
- Aztertutako ikasturte guztietan (2014-2015etik 2021-2022ra), **errepikatzailen** ehuneko txikiak LHko 6. mailakoak dira (% 2tik % 4ra bitartean kasu guztietan), eta DBHko 4. mailakoak datoz gero (% 4tik % 8ra bitartekoak). Ehuneko altuenak DBHko lehen hiru mailetakoak dira. Maila horietan, errepikatzailen ehunekoak % 8tik % 10era bitartekoak dira kasu gehienetan. Mutil errepikatzailen ehunekoak neska errepikatzailenak baino handiagoak dira aintzat hartu diren ikasturte guztietan. Gainera, ia beti, sexuaren arabera dauden alde handienak DBHko lehen hiru mailai dagozkie. DBHko 4. mailan, zertxobait txikiagoak dira aldeak, eta LHko 6. mailan, are txikiagoak.
- Aztertu diren ikasturte guztietan, **errepikatzailak** % 8 inguru dira DBHko ikasleen kopuru osoarekiko (2020-2021 ikasturtean izan ezik, % 6 inguru izan baitziren ikasturte horretan). Hala ere, ehunekoa ez da modu homogeneoan jaisten **eskola-sareari** dagokionez. Errepikatzailen ehunekoa handiagoa da ikastetxe publikoetan itunpekoetan baino, kasu guztietan.

2.2.7. Euskal Hezkuntza Sistemaren eremu estrategikoak

- **Berariazko hezkuntza-laguntzaren premia** (BHLP) duten ikasleen kopurua handitzen joan da pixkana azken ikasturteetan; azken ikasturtean, BHLP duten ikasleen kopuruak bikoiztu egin du duela zazpi urtekoa. Bostetik hiru titulartasun publikoko ikastetxeetakoak ziren, eta gainerakoak itunpekoetakoak. BHLP duten HHko, LHko eta Lanbide Heziketako ikasle gehienak ikastetxe publikoetan ari dira ikasten; BHLP duten DBHko eta Batxilergoko ikasleei dagokionez, gehienak itunpeko ikastetxeetakoak dira. BHLP duten ikasle mutilak BHLP duten nesken ia bikoizta dira, aztertu diren ia maila guztietan.
- **Jatorri atzerritarreko** ikasleek presentzia handiagoa dute LHko 4. mailako ikasleen artean DBHko 2. mailakoen artean baino. Vitoria-Gasteizko ehunekoa, oro har, EAEkoa baino handiagoa da, gainera, nahiz eta gero eta aldeak txikiagotu egin diren azken hamarkadan.
- Bai Vitoria-Gasteizen eta bai EAEn, bai LHko 4. mailan eta bai DBHko 2. mailan, **espainiar nazionalitatea ez duten ikasleen** proportzioa sistematikoki handiagoa da sare publikoan itunpekoan baino. Eta alde nabarmenak daude aztertu diren maila eta esparru guztietan. Aldeak are handiagoak dira LHko 4. mailan DBHko 2. mailan baino. Espainiar nazionalitatea ez duten herritarrak ikastetxe publikoetan biltzeko joera are nabarmenagoa da Vitoria-Gasteizen oro har EAEn baino. Eta hori DBHko 2. mailan nahiz LHko 4. mailan gertatzen da, eta azken horretan nabarmenago gainera.
- A hizkuntza-ereduak da biltzen du **atzerritar ikasleen** ehuneko handiena. Eta joera hori LHko 4. mailan nahiz DBHko 2. mailan ikusten da. EAEn nahiz Vitoria-Gasteizen gertatzen da hori, baina

azken kasu honetan nabarmenago, eta ez da murriztu, autonomia-erkidegoan murriztu arren.

2.2.8. Adingabeekiko familiekin garatutako esku-hartzeak eta laguntzak

- Vitoria-Gasteizko udal-zerbitzuetan **artatu diren pertsonen** kopurua % 7 jaitsi da 2019tik 2022ra.
- **Esku-hartzeen xede izan diren adingabe** gehienak (% 16,5) Zabalzana auzoan bizi dira. Auzo hauek datoz haren ondoren: Salburua (% 10,7), Arriaga-Lakua (% 9,5) eta Sansomendi (% 9,1). Aldiz, esku-hartzeen xede izan diren adingabeen artetik ehuneko txikiena ipar-mendebaldeko, hego-mendebaldeko eta ekialdeko landa-auzoei eta Goikolarrako auzoari dagokie, eta ez dira % 0,5era iristen.
- **Adingabeekiko esku-hartze** gehienetan, familiako ama espainiar nazionalitatekoa da (% 44); ondoren, marokoar nazionalitatekoak datoz (% 13,9), nigeriar nazionalitatekoak gero (% 7,8) eta kolonbiarrak ondoren (% 6,9).
- Udaleko gizarte-zerbitzuek kudeatutako **dirulaguntzak** jasotzen dituzten pertsonen proportzioa % 10,5 jaitsi da azken 5 urtean (2018tik 2022ra).

2.3. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK

Honako atal honetan, ebaluazio diagnostikoen (ED) edizioetako emaitzen analisitik eratorritako alderdi nagusiak laburbilduko dira. Horretarako, txostenaren testuko eskemari eta ordenari jarraituko zaio, baina etapak bereizi gabe, hala egitea komeni zenean izan ezik.

Aztergai honi dagokion txosteneko atala hiru azpiatal nagusitan egituratzen da: testuinguruko aldagaiak, oinarrizko hiru konpetentzia instrumentaletako puntuazioak eta eskola-eraginkortasunaren azterketa, jada aztergai hartu den ereduaren arabera ikastetxeetan izan dituzten hondarretan oinarrituta.

- Testuinguruari dagokionez, lehen aldagaia **familiaren maila sozioekonomikoa eta kulturala** da. Vitoria-Gasteizen, beheranzko joera arin bat ikusten da oro har. EAEn bezalatsu, alde nabarmenak daude ISEK adierazlean, sarearen arabera, baina datu nabarmenena zera da: itunpeko sarean eskolatutako Vitoria-Gasteizko ikasleen ISEK adierazlea altuagoa da EAeko guttizkoari dagokiona baino. Eta joera hori alderantzizkoa da ikastetxe publikoen kasuan. Bigarren Hezkuntzako etapan, joera hori ez da horren argia.
- **Eredu eta estratuei** dagokienez, Vitoria-Gasteizen A eta B ereduetan matrikulatuta dauden ikasleen proportzioek EAeko joerei (beheranzkoak) jarraitzen diete, baina askoz proportzio handiagoetan. D ereduko ikasleen proportzioa txikiagoa da, noski (nahiz eta joera gorakorra den kasu honetan ere). Litekeena da alde hori arrazoi honek eragitea, neurri batean: familia-hizkuntza euskara dutela dioten Vitoria-Gasteizko ikasleen proportzioa txikiagoa da oro har EAekoena baino.
- **Ikasle errepikatzaileak** hartzen badira, LHko 4. mailan ez da alde handirik EAeko ikastetxeen eta Vitoria-Gasteizkoen artean; DBHko 2. mailan, ordea, proportzioa handiagoa da Vitoria-Gasteizen EAEn baino.
- Azkenik, **familia migratzaileetako ikasleei** dagokienez, proportzio handiagoak dagozkie beti Vitoria-Gasteizi, eta alde horiek are handiagoak dira 2017tik. DBHn ere joera horixe ikusten da, baina nabarmenago.

Bigarren blokea Vitoria-Gasteizko ikastetxeek oinarrizko hiru konpetentzia instrumentaletan

lortutako **batez besteko puntuazioen** analisisian oinarritzen da (eta EAEko guztizko puntuazioekiko alderaketan): euskaran, gaztelanian eta matematikan, zehazki.

- **Euskaraz komunikatzeko konpetentziari** dagokionez, hauxe nabarmendu behar da: oro har eta eredu, estratu nahiz sare desberdinetan, Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako batez besteko puntuazioak oro har EAEko batez besteko puntuazioak baino 10 bat puntu txikiagoak dira.
- Aldiz, joera hori alderantzikatu egiten da **gaztelaniaren hizkuntza-konpetentzian**, Vitoria-Gasteizko ikastetxeen batezbestekoak EAEkoak baino 7-10 puntu handiagoak baitira oro har.
- Azkenik, **matematikako konpetentzian**, Vitoria-Gasteizko ikastetxeen emaitzak (LHkoak nahiz DBHkoak) EAEko batezbestekoen oso antzekoak dira.

Ebaluazio diagnostikoaren emaitzen azterketa amaitzeko, hirugarren blokeak ikastetxeen eraginkortasunean jartzen du arreta. *Eraginkortasun* hori neurtzeko, maila anitzeko erregresio-analisi batean ikastetxe bakoitzak lortutako hondarra hartzen da kontuan. Analisi horretan, bi mailetan (ikasleak eta ikastetxeak) erabilgarri dauden testuinguruko aldagaien eragina kontrolatzen da, eta, hala, hondar bat kalkulatzeko ikastetxe bakoitzerako, hau da, konpetentzia bakoitzean lortutako batez besteko puntuazioaren eta bere testuinguruaren arabera legokiokeen puntuazioaren arteko puntuazio diferentziala. Hau da, ikastetxe bakoitzak lortutako batez besteko puntuazioa eta antzeko testuinguru dute ikastetxeek lortutakoa konparatzen dira. Puntuazio diferentzial hori handia eta positiboa denean, esan nahi du ikastetxea *legozkiokeen* emaitzak baino handiagoak lortzen ari dela, kontuan hartuta zer testuingurutan ari den. Eraginkortasun handiko ikastetxea litzateke, beraz.

Esan beharra dago ikuspegi hori partziala dela, nahitaez, irakaskuntzaren esparruan zentratzen delako eta, gainera, oinarritzko hiru konpetentzia instrumentaletan soilik. Gauza jakina denez, ikastetxe batek hezkuntzan eta prestakuntzan betetzen duen zeregina askoz harago doa.

Dena den, txostenean Vitoria-Gasteizko ikastetxeek EAEkoekiko duten eraginkortasun erlatiboaren mailak aztertu dira.

- **LHko etapari dagokionez**, emaitzei begiratuta, ikusten da EDren lehen edizioetan (2009, 2011 eta 2013. urteetakoak), Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako **hondarrak** EAEkoak baino handiagoak zirela ebaluatutako hiru konpetentzietan; beraz, eraginkortasun erlatibo maila handiagoa zutela esan daiteke, oro har. Baina joera hori alderantzikatu egin zen EDen hurrengo edizioetan (2015, 2017 eta 2019. urtekoetan), euskararen kasuan bereziki.
- Aldiz, **Bigarren Hezkuntzako etapan**, Vitoria-Gasteizko ikastetxeen **hondarrak** EAEko batezbestekoa baino handiagoak dira EDen edizio guztietan, eta matematikako konpetentzia nabarmentzen da batik bat.
- Hori bai, emaitza orokor horiek zehatz-mehatz aztertu behar dira; izan ere, LHn nahiz DBHn, ikusten da badirela, eraginkortasun-balioei dagokienez, eredu horretatik urruntzen diren azpitalde batzuk (gora nahiz behera eginez), normalean hizkuntza-ereduaren arabera edo hizkuntza-ereduaren eta sarearen (estratua) konbinazioaren arabera. Horixe da, esate baterako, euskararen kasua, EDen azken edizioetan, B ereduko eta batik bat A ereduko itunpeko ikastetxeetan, hondar-balio txikiak badagozkie, eta, beraz, *eraginkortasun falta* erlatiboa erakusten baitute. Antzeko zerbait gertatzen da gaztelanian ere, estratu hauetan: A ereduko ikastetxe publikoa eta D ereduko itunpekoa.

3. TXOSTEN OSOAREN AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. VITORIA-GASTEIZI BURUZKO DATU OROKORRAK	8
2.1. BIZTANLERIA, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA	8
2.2. BIZTANLERIA, JAIOTERRIAREN ARABERA	9
2.3. BIZTANLERIA, NAZIONALITATEAREN ARABERA.....	10
2.4. JAIOTZAK	11
2.5. 10 URTEKO ETA HORTIK GORAKO BIZTANLERIA, IKASKETA MAILAREN ARABERA	13
2.6. 2 URTEKO ETA HORTIK GORAKO BIZTANLERIA, EUSKARA MAILA GLOBALAREN ARABERA.....	15
2.7. HIZKUNTZA-GAITASUNA, HASIERAKO HIZKUNTZA ETA ETXEKO HIZKUNTZA GASTEIZ-GASTEIZEN ERROLDATUTAKO 5-14 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN ARTEAN, 1981-2021 DENBORA-TARTEAN.	16
2.8. BIZTANLERIAREN PROIEKZIOA ADINAREN ARABERA	19
3. VITORIA-GASTEIZKO HEZKUNTZA-SISTEMARI BURUZKO DATUAK	22
3.1. IKASTETXEEN TIPOLOGIA	22
3.1.1. IKASTETXE MOTAK SAREEN ARABERA	22
3.1.2. IKASTETXEEN NEURRIA MAILEN ETA SAREEN ARABERA.....	24
3.2. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZAKO TALDEAK ETA IKASLEAK.....	28
3.2.1. TALDEAK ETA IKASLEAK MAILAREN ARABERA	28
3.2.2. TALDEAK ETA IKASLEAK SAREEN ARABERA.....	29
3.2.3. IKASLEAK HIZKUNTZA-EREDUAREN ARABERA	30
3.2.4. IKASLEAK MAILAREN ETA HIZKUNTZA-EREDUAREN ARABERA	31
3.3. BEKAK.....	52
3.4. IRAKASLEAK.....	58
3.5. TESTUINGURUKO ADIERAZLEAK	60
3.5.1. ESKOLATZE-TASA	60
3.5.1.1. Eskolatzetasa garbiaren bilakaera (0-5 urte) (2014-2022)	60
3.5.2. BIZTANLERIAREN IKASKETA MAILA	62
3.6. BALIABIDEEN ADIERAZLEAK	65
3.6.1. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKERA (2012-2021)	65
3.6.2. VITORIA-GASTEIZEN SISTEMA PUBLIKOAN GASTUAK IZAN DUEN BILAKERA IKASLEKO (2012-2021) 67	
3.6.3. IRAKASLEKO IKASLEEN RATIOAREN BILAKAERA HAUR-HEZKUNTZAN, LEHEN HEZKUNTZAN ETA BIGARREN HEZKUNTZAN, ETA SAREEN ARABERA (2014-2022).....	69
3.7. EMAITZEN ADIERAZLEAK.....	71
3.7.1. GRADUAZIO-TASA DBH-n.....	71
3.7.1.1. DBHko graduazio-tasaren bilakaera (2012-2018) Vitoria-Gasteizen	71
3.7.2. EGOKITASUN-TASA	72
3.7.2.1. Egokitasun-tasak ikasturteka derrigorrezko etapetan, 2016-2017 ikasturteetik 2021-2022ra bitartean.....	72
3.7.2.2. Egokitasun-tasen bilakaera derrigorrezko irakaskuntzako ikasturteetan.	77
3.7.3. IKASLE ERREPIKATZAILEAK.....	87
3.7.3.1. Ikasle errepikatzaileak LHko 6. mailan eta DBHko 1., 2., 3 eta 4. mailetan, sexuaren arabera.	

Vitoria-Gasteiz, 2014-2015 / 2021-2022	87
3.7.3.2. DBHko ikasle errepikatzaileak ikastetxeen titulartasunaren arabera. Vitoria-Gasteiz, 2014-2015 / 2021-2022	90
3.8. EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN EREMU ESTRATEGIKOAK	91
3.8.1 BERARIAZKO HEZKUNTZA-LAGUNTZAREN PREMIA (BHLP) DUTEN IKASLEEN ESKOLATZEA.....	91
3.8.1.1 BHLP duten ikasleak mailaren eta ikastetxearen titulartasunaren arabera	91
3.8.1.2 BHLP duten ikasleak sexuaren arabera	95
3.8.2 JATORRI ATZERRITARREKO IKASLEEN ESKOLATZEA	97
3.8.2.1. Espainiar nazionalitatea ez duten ikasleak LHko 4. mailan eta DBHko 2. mailan.....	97
3.8.2.2. Espainiar nazionalitatea ez duten ikasleak mailaren eta ikastetxearen titulartasunaren arabera	99
3.8.2.3. Espainiar nazionalitatea ez duten ikasleak mailaren eta hizkuntza-ereduen arabera	102
3.9. ADINGABEEKIKO FAMILIEKIN GARATUTAKO ESKU-HARTZEAK ETA LAGUNTZAK	106
3.9.2. GIZARTE-ZERBITZUEN ESKU-HARTZEEN XEDE IZAN DIREN ADINGABEAK.....	106
3.9.3. GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK JASO DITUZTEN FAMILIAK.....	111
4. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK.....	112
4.1. TESTUINGURUKO ALDAGAIK.....	112
4.1.1. INDIZE SOZIOEKONOMIKO ETA KULTURALA (ISEK).....	112
4.1.2. ESTRATUAK (SAREA ETA EREDUA)	115
4.1.3. FAMILIA-HIZKUNTZA	123
4.1.4. ERREPIKATZAILEA.....	125
4.1.5. IMMIGRAZIOA.....	127
4.1.6. SEXUA	129
4.2. ZUZENEKO PUNTUAZIOAK KONPETENTZIEN, ETAPEN, SAREEN ETA URTEEN ARABERA	131
4.2.1. EUSKARA	131
4.2.1.1. Lehen Hezkuntza	131
4.2.1.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	139
4.2.2. GAZTELANIA.....	146
4.2.2.1. Lehen Hezkuntza	146
4.2.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	155
4.2.3. MATEMATIKA.....	163
4.2.3.1. Lehen Hezkuntza	163
4.2.3.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	170
4.3. ERAGINKORTASUN-AZTERKETAREN EREDUAN OINARRITUTAKO HONDARRAK, KONPETENTZIEN, ETAPAREN, SAREAREN ETA URTEAREN ARABERA (2009, 2011, 2013, 2015, 2017 ETA 2019. URTEETAKO BILAKAERA)	178
4.3.1. EUSKARA	179
4.3.1.1. Lehen Hezkuntza	179
4.3.1.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	187
4.3.2. GAZTELANIA.....	195
4.3.2.1. Lehen Hezkuntza	195
4.3.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	202
4.3.3. MATEMATIKA.....	209
4.3.3.1. Lehen Hezkuntza	209

4.3.3.2.	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	216
5.	ONDORIOAK.....	224
5.1.	VITORIA-GASTEIZI BURUZKO DATU OROKORRAK	224
5.2.	VITORIA-GASTEIZKO HEZKUNTZA-SISTEMARI BURUZKO DATUAK.....	225
5.2.1.	IKASTETXEEN TIPOLOGIA	225
5.2.2.	UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZAKO IKASLEAK	225
5.2.3.	BEKAK.....	226
5.2.4.	TESTUINGURUKO ADIERAZLEAK	227
5.2.5.	BALIABIDEEN ADIERAZLEAK	227
5.2.6.	EMAITZEN ADIERAZLEAK	227
5.2.7.	EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN EREMU ESTRATEGIKOAK	228
5.2.8.	ADINGABEEKIKO FAMILIEKIN GARATUTAKO ESKU-HARTZEAK ETA LAGUNTZAK	229
5.3.	EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK.....	229